



Xuxen - MAC OS X

xuxen.eus

Azken eguneraketa: 2018/05/17

Xuxen MAC OS X





Edukiak

1. Eskakizunak.....	4
1.1 Sistema eragilea.....	4
1.2 Zer software behar den.....	4
2. Instalazioa eta desinstalazioa.....	5
2.1. Instalazioa.....	5
2.2. Desinstalazioa.....	7
3. Zuzentzaile ortografikoaren erabilera.....	8

Xuxen zuzentzailearen azken bertsioa MAC OS X sistema eragilea duten ordenagailuetan erabiltzeko behar den informazioa biltzen du eskuliburu honek: nola



Xuxen - MAC OS X

xuxen.eus

Azken eguneraketa: 2018/05/17

instalatu, zein aplikaziotan erabil daitekeen eta erabiltzeko jarraitu beharreko pausoa.

MAC OS X sistemaren barruan txertatzen den zuzentzaile honek ez du eraginik, adibidez, Microsoft Office 2011 aplikazioan. Beraz, oraingoz behintzat, aipatutako aplikazio horretan ezin da Xuxen txertatu.

1. Eskakizunak

1.1 Sistema eragilea

Xuxen 5.1 zuzentzailea instalatzeko, sistema eragileak Mac OS X Snow Leopard (10.6) baino berriagoa izan behar du. Sistema eragile horretatik aurrerako bertsioetan hasi zen Apple Hunspellen oinarritutako hiztegiak ulertzeko zerbitzua txertatzen.

1.2 Zer software behar den

Dokumentu honetan aipatzen den moduan instalatzen badugu Xuxen 5.1 gure MAC ordenagailuko sisteman, hau badabilen ikusteko, ordenagailuak instalatuta ekartzen dituen **Safari** eta **TextEdit** aplikazioetan egin behar da erabilera-proba. Bestalde, **Chrome** web-nabigatzailean ere badabil Xuxen 5.1 zuzentzaile ortografikoa.

2. Instalazioa eta desinstalazioa

2.1. Instalazioa

Xuxen 5 instalatzeko, Hunspell-en oinarritutako hiztegiak deskargatu behar dira **xuxen.eus** webgunetik, <http://xuxen.eus/deskargatu> ataleko Hunspell fitxatik.

“Xuxen 5.1 (Hunspell)” estekan klikatuz, fitxategia deskargatu eta deskonprimatu. Bi fitxategi erauziko dira: **.aff eta .dic luzapenak dituzten fitxategi bana**.

Xuxen bertsio nagusiak

Xuxen hainbat euskarritarako garatu da, eta horri buruzko informazioa duzu hemen. Bertsioei buruzko zalantzak argitzeko, [jarri gurekin harremanetan](#).

Microsoft Word Web-nabigatzaileak LibreOffice/OpenOffice Adobe InDesign Hunspell MAC OS X

Hunspell hizkuntza morfologikoki aberatsetarako diseinatutako zuzentzaile ortografikoko motor bat da. MySpell-en oinarrituta dago, eta askotan erabili dugu euskarazko zuzentzaileak sortzeko. **Teknologia horrek**, ordea, **baditu muga batzuk**, eta, beraz, ez dira berdinak Xuxen.eus-en zuzenketa-motorrak eta Hunspellenak ematen dituzten emaitzak. Euskara hizkuntza konplexua da morfologikoki, eta morfema asko erabil daitezke hitz edo forma bat sortzeko.


Hunspellen oinarritutako euskarazko zuzentzaile ortografiko bat sortzeko, bi fitxategi erabili dira: eu_ES.aff eta eu_ES.dic (deskargatzeko esteka behean). Xuxen 5.1 bertsioaren datuekin sortuak dira, eta, beraz, eguneratuta daude.

Horiek deskargatzean, garrantzitsua da fitxategien jatorrizko luzapena mantentzea, hau da, fitxategiek izen hori bera izan behar dute: eu_ES.aff eta eu_ES.dic. Web-nabigatzaile batzuk automatikoki aldatzen diete luzapena, fitxategiaren izenari .txt erantsiz; beraz, kontuan hartu behar da xehetasun hori.

Hunspelleko hiztegiak ulertzeko gai diren hainbat aplikazio daude merkatuan. Une honetan, Openoffice eta Libreoffice bulegotika-aplikazioetarako inplementatuta dagoen Xuxen plugina Hunspellen dago oinarritua. Baita Firefox, Internet Explorer eta Chrome web-nabigatzailean inplementatutakoa ere. Era berean, TOKIKOMekoek garatutako InDesign CS6-rako pluginak ere Xuxenen Hunspell hiztegi librea oinarritzen dira.


Deskargatu: Xuxen 5.1 (Hunspell)

Behar diren fitxategiak ordenagailura jaitsi ondoren, **/Librería/Spelling** (edo /Library/Spelling) karpetara kopiatu behar dira. Horretarako, **Finder** izeneko aplikazioa erabiltzea gomendatzen da.



eu_ES.aff eta eu_ES.dic fitxategiak karpeta horretan sartuta, sistema eragileak automatikoki ezagutuko ditu eta euskarazko zuzentzaile ortografikoa erabiltzen jakingo du. Aktibatu egin behar da, ordea, zuzentzailea; horretarako, **Preferencias del Sistema** (System Preferences) aplikazioan aldaketak egin behar dira.

Teclado > Texto aukeran klik egin eta **Ortografía** jartzen duen aukeran **Euskara (librería)** azalduko da. Hori aukeratuz, sistemari adieraziko diogu zuzentzaile hori erabili nahi dugula testua zuzentzeko.



2.2. Desinstalazioa


Zuzentzailea desinstalatzeko, nahikoa da eu_ES.aff eta eu_ES.dic fitxategiak **/Librería/Spelling** (/Library/Spelling) karpetatik ezabatzea. Hori eginda, ezabatu egiten dira euskarazko zuzentzailearekiko erreferentzia guztiak.

3. Zuzentzaile ortografikoaren erabilera

Hainbat aplikaziotatik erabil daiteke zuzentzailea; adibidez, **Safari** eta **Chrome** web-nabigatzaileetatik. Dokumentu honetan adibide moduan **Safari** erabili den arren, beste hainbat aplikaziotan ere erabil daiteke Xuxen zuzentzaile ortografikoa.


Behin **Safari** web-nabigatzailea irekita, testu-kutxa bat duen webgune batera sartu behar da; adibidez, **Gmailekin** egin daiteke proba.

Testu-kutxan idatzi, testua aukeratu akats ortografikoak detektatzeko aukera aktibatuta daukazula:



Bestalde, euskaraz zuzentzea nahi dugula esateko bi aukera daude: sistemako ezarpenetatik aukeratuta, edo, bestela, goiko irudiko menuan agertzen den 'Mostrar ortografía y gramática' aukeran klik eginda. Hor, euskarazko testu bat zuzentzen ari

garela esan beharko zaio sistemari.



Xuxen-en beste bertsioetan bezala, akats ortografikoak dituzten hitzak gorriz azpimarratuta agertuko dira, eta hitz horren ordezeko izan daitezkeen proposamenak emango ditu.